

## euskara atala

### 2019-2020 EUSKARAZKO PRESTAKUNTZA PLANA

#### “Wikikastetxea gara eta harro gaude”

**Modalitatea:**

Aurrez aurreko ikastaroa.

**Etap:**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

**Parte-hartzaileak:**

DBHko 4. mailako irakasleak. Egokiena litzateke ikastetxe bakoitzetik gutxienez hiru irakaslek parte hartzea: euskara irakasleak, IKT irakasleak eta beste arloren batekoak. Eskaera horiek lehentasuna izanen dute, baina banakako eskaerak ere onartuko dira.

**Deitzailea:**

Hezkuntza Departamentuko Euskara Atala.

**Justifikazioa:**

*Wikikastetxea* Euskal Wikilarien Kultura Elkarteak Nafarroako Gobernuarekin batera sortutako egitasmoa da. Nafarroako ikastetxeetan euskarazko Wikipediari buruzko ezagutza handitzea eta, aldi berean, ikasleak euskarazko edukiak sortzera animatzea ditu helburu. Ikastaro honen bidez, Euskal Wikilarien Kultura Elkarteak oinarritzko prestakuntza eta materialak eskainiko dizkie Bigarren Hezkuntzako irakasleei. Funtsean, Wikipedia hezkuntzarako tresna gisa erabiltzeko eta sarrera berriak sortzeko tresnak erabiltzen eta jarraipena egiten ikasiko dute.

**Helburuak eta edukiak:**

- Idazmena eta bestelako gaitasunak lantzea: elkarlan eta alfabetatze digitala, informazioaren kontrastea, proiektuen garapena, lizentzien eta erabilera eskubideen inguruko jabeak eta pentsamendu kritikoa, besteak beste.
- Ikasleak motibatzea eta akuilatzea, ikastetxeaz harago doan egitasmo bateko partaide direla ulertaraziz.
- Euskarazko entziklopedia askean dauden edukiak ugaritzea eta euskarazko edukien sorreran guztiok dugun ardura ulertzea.
- Euskararen erabileran eta gazteen hizkuntza-atxikimenduan eragitea, agerian utziz euskara arlo digitalean ere komunikaziorako tresna baliagarria dela.

- Nafarroako D ereduko ikastetxeetan euskarazko Wikipediari buruzko ezagutza handitzea.

**Metodologia:**

Dinamikoa eta praktikoa. Lehen saioan (urriaren 9an) ikastetxe guztietako irakasleek elkarrekin jasoko dute oinarrizko prestakuntza, EIBZren Autoikaskuntza gelan. Materiala ere jasoko dute irakasleek: ikasleei banatzeko gidak, unitate didaktiko labur bat argibide sinpleekin eta aurki ditzaketen ohiko erronken inguruko azalpenak. Ondoren, ikastetxeetara egin beharreko bisiten egutegia zehaztuko dugu: egun berean, irakasleek 2. prestakuntza saioa jasoko dute ikastetxean eta ikasleek Wikipediari buruzko hitzaldia. Hortik aurrera, ikastetxeko irakasleak eta ikasleak beren kabuz arituko dira, baina eskura izanen dute zalantzak argitzeko telefonoa edo e-posta. Azken saioa EIBZn eginen da, maiatzean, parte-hartzaile guztiek balorazioa eta proposamenak egiteko.

**Maileak:**

Galder Gonzalez (Euskal Wikilarien Kultura Elkarte)

**Arduraduna:**

Ana Unanue Serrano (Euskara Atala)  
848 42 63 99  
aunanues@navarra.es

**Tokia:** EIBZ (Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa: Zubiarte kalea, 13, Uharte). eta parte hartzen duten ikastetxeak.

**Datak:** EIBZko saioak urriaren 9an (asteazkena) eta 2020ko maiatzaren 5ean (asteartea). ikastetxeetakoak emailearekin adostuko dira.

**Ordutegia:** EIBZko saioak 17:00-19:30. Ikastetxeetakoak emailearekin zehaztu behar.

**Iraupena:** 9 ordu (EIBZko bi saioak 5 ordu eta beste 4 ordu ikastetxean)

**Plaza kopurua:** 24.

**Parte-hartzaileen gutxienerako kopurua:** 6.

**Izena emateko epea:**

Irailaren 2tik irailaren 30era izanen da.

Lotura honen bitartez egin behar da:

[https://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/hasi/inscripciones/nueva\\_inscripcion.php?idioma=euskaraz&id\\_curso=19552](https://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/hasi/inscripciones/nueva_inscripcion.php?idioma=euskaraz&id_curso=19552)

**Hautatzeko irizpideak:** lehentasuna izanen dute bi irakasle baino gehiagoko ikastetxeen eskaerek.

**Hizkuntza:** euskara.

## Oharrak:

- Aurrerantzean prestakuntza ikastaroekin zerikusia duten abisu eta jakinarazpen guztiak Hezkuntzako Sare Publikoko irakasleek duten PNTE kontu ofizialera bidaliko dira (erabiltzailea@educacion.navarra.es). Ikastetxe pribatu eta itunduetako irakasleei abisu eta jakinarazpenak Educan ezarria duten helbide elektronikora iritsiko zaizkie.
- Izena emateko epea amaituta, ahalik eta lasterren argitaratuko da jarduera honetarako onartuen zerrenda, honako web-orri honetan:

<https://eibz.educacion.navarra.es/web1/kategoria/irakasleen-gaitasunak/ikastaroak/onartuen-zerrendak/>

<http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/eu/onartuen-zerrenda/>

- Irakasle bat onartu badute jarduera egiteko eta ezin badu egin, deialdian agertzen den jardueraren arduradunari esan beharko dio posta elektronikoko baten bitartez, baja emateko jarduera hasi baino lehen. Bestela zehapen-prozesua abiaraziko da, eta irakaslea ezin izanen da 5 hilabetez sartu izena emateko plataforman; ondorioz, galduko du Nafarroako Hezkuntza Departamentuak antolatzen dituen prestakuntza jardueretan izena emateko aukera. Zehapen horrek ez du inor salbuetsiko ikasturtean prestakuntzako 35 ordu egiteko beharkizuna betetzetik.
- EIBZ-Euskara Atalaren online prestakuntzako ikastaroei dagokienez, ikastaroa hasten den egunetik 15 eguneko epean irakasleak ez badu "Nahitaezko lana: aurkezpena" izenekoa egin eta entregatzen, automatikoki baztertuko da ikastarotik. Baztertuz gero, gorago aipatutako zehapen-prozesu bera aplikatuko zaio.
- Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publikoetako eta itunduetako irakasleek soilik egin dezakete prestakuntza, jarduneko zerbitzuan badaude edo administrazio edo lan kontratu bat badute, eta haiei baino ez zaie ziurtatuko; salbuespena amatasun-lizentzia duten irakasleak dira, abuztuaren 23ko 71/2017 Foru Dekretuan ezarri bezala. Aldi baterako ezintasun egoeran egonez gero, ezinezkoa da prestakuntzara joatea.
- Ziurtagiria eskuratzeko aurrez aurreko saioen %85era joan beharko da eta saio bakoitzaren sinaduren orrian bolaluma ezabaezinarekin sinatu. Ez da kontuan hartuko sinatu ez den saiorik; hau da, ez da onartuko bestelako bertaratze-ziurtagiririk. Prestakuntzaren diseinuan lan praktikoa egitea sartuta badago, bertaratzeaz gain, nahitaezkoa izanen da lanak aurkeztea ziurtagiria lortzeko.